MOTOROLA

V220

# Telefonoaren erabilera-gida.




MOTOROLA

# Ongi etorri

Ongi etorri Motorolaren komunikazio mugikor digitalaren mundura! Zorionak Motorola V220 GSM telefono mugikorra aukeratzeagatik.



www.hellomoto.com

Motorola eta M logotipo estilizatua AEBetako Patenteen eta Marka Erregistratuen bulegoan daude erregistratuta.

Java eta Javan oinarritutako gainerako marka guztiak Sun Microsystems, Inc.-en marka komertzialak edo erregistratuak dira Estatu Batuetan eta beste herrialdeetan.

Gainerako produktu- eta zerbitzu-izenak haien jabeen marka komertzialak dira.

© Motorola, Inc., 2003.

**Softwarearen egile-eskubideei buruzko ohartarazpen legala**

Gida honetan azaldutako Motorolaren produktuek Motorolaren edo hirugarrenen softwarea eduki dezakete, erdieroalezko memorietan edo bestelakoetan grabatuta, egilearen eskubideek babestuta. Estatu Batuetako eta beste herrialde batzuetako legeek Motorolari eta beste software-fabrikatzaileei eskubide berezi batzuk eman dizkiete egile-eskubideek babestutako softwareari buruz; besteak beste, egile-eskubideek babestutako software hori banatzeko edo erreproduzitzeko eskubideak. Horren arabera, egile-eskubideek babesten dituzten softwareak, Motorolaren produktuetan badaude, ezingo dira aldatu, banatu edo erreproduzitu, eta atzeranzko ingeniaritza ere ezingo zaie aplikatu legea kontuan hartuta. Gainera, Motorolaren produktuak erostea ez da hartu behar lizentziatzat –zuzenekoa edo inplikaziokoa, alegaziokoa edo bestelakoa–, egile-eskubidetzat edo Motorolaren edo beste software-fabrikatzaileen patente edo patenteen aplikaziotzat. Erabilera arrunterako lizentzia bakarrik ematen du, ez erabilera esklusiboa eta eskubiderik gabea, produktua saltzetik inplizituki sortua.

Produktuen zehaztasunak eta funtzioak aurrez jakinarazi gabe alda daitezke; alabaina, ahal dela, sarri eguneratzen ditugu erabiltzaileen eskuliburuak, produktuan egindako aldaketak horietan ere ager daitezen. Bestalde, nekez gertatuko den arren, zure eskuliburuaren bertsioak produktuaren oinarrizko funtzio guztiak azaltzen ez baditu, jakinaraz iezaguzu. Eskuliburuen bertsio eguneratuak Motorolaren web guneko erabiltzailearen atalean ere ikus ditzakezu: http://www.motorola.com.

# Aurkibidea

**Informazio orokorra eta segurtasunari buruzkoa**......6
**Sarrera**......14
Erabiltzailearen eskuliburuari buruz......14
SIM txartela ezartzea......14
Bateria erabiltzea......15
Bateria jartzea ......17
Bateria kargatzea......18
Telefonoa piztea......19
Bolumena egokitzea......19
Dei bat egitea......20
Dei bati erantzutea......20
Telefono-zenbaki bat kontsultatzea......21
**Beste funtzio batzuk** ......22
Argazkiak ateratzea eta bidaltzea......22
Multimedia-mezu bat bidaltzea......24
Multimedia-mezu bat jasotzea......26
Bideoak erreproduzitzea......27
**Telefonoa erabiltzen ikastea**......28
Pantaila erabiltzea......28
Nabigazio-teklak erabiltzea......33
Menuak erabiltzea......34
Testua idaztea......37
Funtzio ugariko tekla erabiltzea......47
Kanpoko pantaila erabiltzea......47
Esku libreko bozgorailua erabiltzea......47
Kodea, PINa edo pasahitza aldatzea......48

Telefonoa blokeatzea eta desblokeatzea....48
Kodea, PINa edo pasahitza ahaztu bazaizu....50
Telefono-aurkibidea erabiltzea....50
**Telefonoa konfiguratzea**....53
Zure izena eta telefono-zenbakia gordetzea....53
Ordua eta data konfiguratzea....53
Txirrin-mota konfiguratzea....54
Erantzuteko aukerak konfiguratzea....54
Pantailaren hondoa konfiguratzea....55
Animazio bat konfiguratzea....56
Pantailaren kontrastea konfiguratzea....57
Pantailaren kolorea konfiguratzea....57
Argia doitzea....58
Pantaila jarduerarik gabe egongo den denbora konfiguratzea....58
**Dei-funtzioak**....59
Aktibo dagoen linea aldatzea....59
Berriro deitzea....59
Automatikoki berriro deitzeko aukera erabiltzea....60
Dei-identifikazioa erabiltzea....60
Sarrerako deia bertan behera uztea....61
Dei-alerta desaktibatzea....61
Larrialdi-zenbakia markatzea....62
Nazioarteko zenbakiak markatzea....62
Azken deiak kontsultatzea....62
Erantzun ez den deia itzultzea....64
Zenbakien bloka erabiltzea....64
Zenbakiak gehitzea....65
Markaketa bizkorra....65
Tekla batekin markatzea....66
Ahots-postontzia....66

Deia zain uzteko aukera......67
Dei bat zain uzteko......68
Deien transferentzia......68
**Telefonoaren funtzioak**......70
Menuen diagrama......70
Funtzioen erreferentzia bizkorra......72
**Absortzio Espezifikoaren Koefizienteari buruzko datuak**......89
**Aurkibidea**......91

# Informazio orokorra eta segurtasunari buruzkoa

ERABILTZEN ARI ZARENEKO SEGURTASUNARI ETA ERAGINKORTASUNARI BURUZKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA

IRAKURRI INFORMAZIO HAU TELEFONO MUGIKORRA ERABILI AURRETIK.

Dokumentu honetako informazioak 2002ko abenduaren 1era bitarte argitaratu diren erabilera-eskuliburuetan dagoen informazio orokorra eta segurtasunari buruzkoa ordezten du.

## Irrati-maiztasuneko (IM) energiarekiko esposizioa

Zure mugikorrak transmisore eta hartzaile bana ditu. ON konektatuta dagonean, IM energia jasotzen eta transmititzen du. Telefono mugikorrarekin komunikatzean, telefono mugikorrak transmititzen duen energia-maila kontrolatzen du deiak kudeatzen dituen sistemak.

Motorola telefono mugikorra bereziki diseinatuta dago gizakiak IM energiaren eraginpean egoteari buruz herrialde bakoitzean dauden legeak betetzeko.

## Erabilera-neurri egokiak

Telefono mugikorra ongi erabiltzen dela berma dadin eta, aplikatu beharreko neurrien arabera, gizakiak IM energiaren eraginpean era seguruagoan egon daitezen, segitu beti jarraibide hauei:

### Kanpoko antena zaintzea

Erabili soilik Motorolak emandako edo horren ordez baimendutako antena. Baimenik gabeko antenak erabili, aldaketak egin edo osagarriak ipintzen badira, telefono mugikorra honda daiteke.

EZ ukitu antena komunikagailu pertsonala ERABILTZEN ARI ZARENEAN, antena ukitzeak deiaren kalitatean eragiten baitu eta telefono mugikorra behar baino potentzia-maila handiagoan ibiltzea eragin baitezake. Gainera, baimenik gabeko antenak erabiltzen badira, herrialdean aplikatu beharreko araudia urra daiteke.

### *Telefonoaren funtzionamendua*

Deiak egitean edo jasotzean, erabili telefono mugikorra telefono finkoak edo kable bidezko telefonoak erabiltzen dituzun bezalaxe.

### *Funtzionamendua, unitatea soinean daramazula*

IM energiarekiko esposizioari buruzko jarraibideak betetzeko, telefono mugikorra soinean eramaten baduzu eta transmisioren bat egiten baduzu, jarri beti komunikagailu pertsonala Motorolak telefono mugikor horrentzat emandako edo onartutako euskarri, zorro, kutxatila edo tresna batean, eskura duzunean betiere. Motorolak onartu gabeko osagarriak erabiltzeak eragin dezake IM energiarekiko esposizioa jarraibideetan ezarritako mugen gainetik egotea. Motorolak onartutako edo emandako gorputz-osagarriren bat erabiltzen ez baduzu eta telefono mugikorra normal erabiltzeko posizioan ez baduzu, ziurtatu telefono mugikorra eta antena gutxienez 2,5 cm-ko (hazbete bat) distantzian daudela transmititzen ari denean.

### *Datu-eragiketa*

Telefono mugikorraren datu-funtzioren bat erabiltzen baduzu, kable-osagarriarekin edo hori gabe, jarri telefono mugikorra eta antena gorputzetik gutxienez 2,5 cm-ra (hazbete bat).

### *Baimendutako osagarriak*

Motorolak onartu gabeko osagarriak –bateriak eta antenak barne– erabiltzeak eragin dezake IM energiarekiko esposizioa jarraibideetan ezarritako mugen gainetik egotea. Baimendutako osagarriak ezagutzeko, sartu gure web orrian: www. motorola.com.

## *IM energiaren interferentzia eta bateragarritasuna*

***Oharra:*** *Ia gailu elektroniko guztiek izan ditzakete interferentziak kanpo-iturrietako IM energiarekin, ongi blindatuta ez badaude eta IM energiarekiko bateragarritasuna eskaintzeko diseinatuta edo konfiguratuta ez badaude. Batzuetan, telefono mugikorrak interferentziak eragin ditzake.*

### *Eraikinak*

Itzali telefono mugikorra hori adierazten duten oharrak dauden lekuetan. Ospitaleetan eta osasun-zentroetan, besteak beste, kanpoko IM energiarekiko sentikorrak diren ekipoak erabiltzen dituzte batzuetan.

### *Aireontziak*

Aireontzi batean zaudenean, itzali telefono mugikorra hala eskatzen dizutenean. Telefono mugikorrak aplikatu beharreko legeen arabera tripulazioak emandako jarraibideei kasu eginez baino ez dira erabili behar.

### *Gailu medikoak*

#### Taupada-markagailua

Taupada-markagailuen fabrikatzaileek gomendatzen dute telefono mugikorren eta taupada-markagailuen artean, gutxienez, 15 zentimetroko (6 hazbeteko) distantzia uztea.

Taupada-markagailua duten pertsonek neurri hauek hartu behar dituzte kontuan:

- Telefono mugikorra BETI taupada-markagailutik 15 zentimetrora (6 hazbete) edo urrunago eduki behar dute konektatuta dagoenean.
- Ezin dute komunikagailu pertsonala bular pareko patrikan eraman.
- Taupada-markagailuaren kontrako aldeko belarria erabili beharko dute interferentziak izateko aukera murrizteko.

- Interferentzia dagoela uste badute, berehala itzali beharko dute komunikagailua.

**Entzuteko aparatuak**

Zenbait telefono mugikor digitalek interferentziak sor ditzakete entzuteko zenbait aparaturekin. Interferentzia hori gertatuz gero, kontsultatu entzuteko aparatuaren fabrikatzailearekin, zein aukera dauden jakiteko.

**Beste gailu mediko batzuk**

Bestelako gailu mediko pertsonalak erabiltzen badituzu, kontsultatu gailuaren fabrikatzailearekin irrati-maiztasuneko energiaren kontra blindaje egokirik duen jakiteko. Zure medikuak lagun diezazuke informazio hori eskuratzen.

## *Ibilgailuak gidatzean*

Kontsulta ezazu gidatzen den bitartean telefono mugikorra erabiltzeari buruz dagoen legeria. Egin kasu beti.

Gidatzen ari zarenean telefono mugikorra erabiltzen baduzu:

- Kontuz gidatu eta jarri arreta osoa errepidean
- Baldin baduzu, erabili esku libreko ekipoa.
- Irten errepidetik eta aparkatu ibilgailua deiak egin edo erantzun baino lehen.

## *Ohar operatiboak*

### *Airbaga duten ibilgailuak*

Ez jarri telefono mugikorra airbagaren gainean, ezta airbaga puzten den lekuan ere. Airbagak indar handiz puzten dira. Telefono mugikorra airbaga puzten den lekuan jarri badugu eta hura puzten bada, telefono mugikorra indar handiz jaurti daiteke eta kalte larriak eragin diezazkieke ibilgailuan doazen pertsonei.

### *Lehertzeko arriskua duten atmosferak*

Itzali mugikorra leherketak gertatzeko arriskua dagoen atmosferako guneetara sartu baino lehen, baldin eta telefono mugikorra 'segurtasun intrintsekoko guneak' izeneko guneetan erabiltzeko bereziki homologatua ez badago. Gune horietan, ez atera komunikagailua eta ez instalatu edo aldatu bateriarik. Lehertzeko arriskua dagoen guneetan, baterien txinpartek leherketak edo suteak sor ditzakete eta kalteak edo heriotza eragin.

***Oharra:*** *Goian aipatutako lehertzeko arriskua duten eremuak hauek dira, besteak beste: erregaia hornitzeko guneak –gasolina-zerbitzuguneak–, itsasontzien sotoak, erregaiak edo substantzia kimikoak biltegiratzeko edo lekuz aldatzeko instalazioak, airean substantzia kimikoak edo partikulak –adibidez, aleak, hautsa edo partikula metaliko meheak– dauden guneak edo lekuak, edo normalean ibilgailuaren motorra itzaltzeko esaten zaizun beste edozein leku. Lehertzeko arriskua duten atmosferako guneak, normalean, argi adierazita daude, baina ez beti.*

### *Detonazioguneak eta detonagailuak*

Lehergaien detonazio-eragiketekin egon daitezkeen interferentziak saihesteko, itzali komunikagailu pertsonala detonagailu elektrikoetatik hurbil zaudenean, lehergaien detonazioguneetan edo "Itzali ekipo elektronikoak" idazkunak dauden guneetan. Egin kasu idazkun eta jarraibide guztiei.

### *Bateriak*

Bateria guztiek kalte materialak edo gorputzeko lesioak –lesioak edo erredurak– eragin ditzakete, material eroaleren batek (adibidez, bitxiak, giltzak edo kate metalikoak) terminalak ukitzen baditu. Material eroaleak zirkuitu elektrikoa itxi dezake (zirkuitulaburra) eta gehiegi berotu. Kontuz ibili kargadun bateriak erabiltzerakoan, batez ere, patriketan, eskuko poltsetan edo objektu metalikoak egon daitezkeen bestelako lekuetan jartzean. Erabili Motorolaren jatorrizko bateria eta kargagailuak soilik.

Zure bateriak edo telefono mugikorrak ikur hauek izan ditzakete; horien esanahia hau da:

| Ikurra | Definizioa |
|---|---|
|  | Segitu beharreko informazio garrantzitsua. |
|  | Bateria eta telefono mugikorra ez dira sutan jarri behar. |
|  | Bateria eta telefono mugikorra tokiko legeen arabera birziklatu behar dira. Informazio gehiago behar baduzu, jarri harremanetan agintari eskudunekin. |
|  | Bateria eta telefono mugikorra ez dira zakarretara bota behar. |
|  | Telefono mugikorrak litio-ioizko bateria du. |

## *Epilepsia-krisiak edo zorabioak*

Pertsona batzuek epilepsia-krisiak edo zorabioak izan ditzakete keinuka dauden argien eraginpean, hala nola, telebista ikustean edo bideo-jokoetan aritzean. Litekeena da epilepsia-krisi edo zorabio horiek sekula horrelakorik gertatu ez zaien pertsonei ere gertatzea.

Argi keinukarien eraginpean epilepsia-krisirik izan baduzu edo zure familian bateren batek izan badu, mesedez, galdetu medikuari mugikorrarekin bideo-jokoetan jolastu edo argi keinukariak aktibatu baino lehen (argi keinukarien aukera ez dago modelo guztietan).

Gurasoek kontrolatu egin behar dituzte seme-alaben telefonoko bideo-jokoen erabilerak edo argi keinukarien aukerak.

Sintoma hauetakoren bat duen pertsona orok erabiltzeari utzi eta medikuarengana joan behar du: konbultsioak, begien edo muskuluen mugimendu konbultsiboak, konortea galtzea, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa.

Sintoma horiek azaltzeko probabilitatea gutxitzeko, mesedez, hartu neurri hauek:

- Ez jolastu edo ez erabili argi keinukaririk nekatuta edo loguratuta bazaude.
- Hartu atseden gutxienez orduko 15 minutuan.
- Argiak piztuta dauden lekuetan jolastu.
- Jolasteko, ipini pantaila begietatik ahalik eta urrunen.

## *Lesio-adierazgarri errepikatuak*

Telefono mugikorreko jokoetan aritzean, batzuetan, eskuetako, besoetako, sorbaldako, belaunetako edo gorputzeko beste ataletako mina senti daiteke. Segitu jarraibide hauei tendinitisa, karpoko tunelaren sindromea edo hezurretako edo muskuluetako beste lesiorik ez izateko:

- Hartu atseden gutxienez orduko 15 minutuan.
- Jolasean zabiltzala eskuetan, eskumuturretan edo besoetan nekea edo mina sentitzen baduzu, gelditu eta hartu atseden hainbat orduz berriz jolasten hasi baino lehen.
- Jolasean ari zarela edo jolastu ondoren, oraindik ere, eskuak, eskumuturrak edo besoak minduta badituzu, ez jolastu gehiago eta galdetu medikuari.

## *Europako Batasuneko jarraibideekiko adostasun-deklarazioa*

Honen bidez, Motorolak honakoak betetzen dituela adierazten du

- bete beharreko baldintzak eta 1999/5/EE jarraibideko gaiari buruzko gainerako xedapenak
- Europako Batasuneko gaiari buruzko gainerako jarraibideak




Aurreko taulan Produktuaren Onarpen Zenbakiaren ohiko adibide bat ikus daiteke.

www.motorola.com/rtte orrian ikus dezakezu 1999/5/EE jarraibidearekiko (R&TTE jarraibidea) Adostasun-deklarazioa zure produktuarentzat. Zure Adostasun-deklarazioa aurkitzeko, sartu zure produktuaren etiketako Produktuaren Onarpen Zenbakia web orriko "Bilaketa" barran.

# Sarrera

## Erabiltzailearen eskuliburuari buruz

Eskuliburu honetan zure Motorola mugikorraren oinarrizko funtzioak deskribatzen dira.

### Aukerako funtzioak



Harpidetzaren araberakoak eta aukerakoak diren eta, agian, gune geografiko guztietan operadore guztiek eskaintzen ez dituzten sareak, SIM txartelak edo funtzioak identifikatzen ditu etiketa honek. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure operadorearekin.

### Aukerako osagarriak




Etiketa honek Motorola Original™ osagarriren bat behar duten funtzioak identifikatzen ditu.

## SIM txartela ezartzea

Zure SIM txartelak (Subscriber Identity Module, Abonatuaren Identitate Modulua) zure telefono-zenbakia, zerbitzuaren xehetasunak eta aurkibidearen/mezuen memoria ditu.

**Kontuz:** Ez tolestu eta ez urratu SIM txartela. Ez jarri elektrizitate estatikoak, urak edo zikinkeriak eragiteko moduan.




## *Bateria erabiltzea*

Bateriaren errendimendua faktore askoren araberakoa da, besteak beste, hauen araberakoa: mugikorraren zerbitzu-konfigurazioa, seinalearen intentsitatea, telefonoa erabiltzen den inguruneko tenperatura, aukeratu eta erabiltzen diren funtzioak eta/edo konfigurazioak, telefonoaren osagarrien konektorera konektatutako osagarriak eta aplikazioetan erabiltzen diren ahots, datu eta beste hainbat parametro.

**Kontuz:** Lesioak edo erredurak gerta ez daitezen, ez utzi objektu metalikoak bateria ukitzeko moduan edo bateriaren terminalek zirkuitulaburra egiteko moduan.

Bateriak gehiago iraun dezan:

- Erabili beti Motorola Original bateriak eta kargagailuak. Telefonoaren bermeak ez ditu bere gain hartzen Motorolak homologatu gabeko bateriak eta kargagailuak erabiltzeagatik sortutako kalteak.
- Baliteke bateria berriek edo denbora luzean biltegiratuta egon direnek denbora gehiago behar izatea erabat kargatzeko.
- Kargatzen ari denean, eduki bateria giro-tenperaturan.
- Ez eduki bateria -10 °C baino gutxiagoko eta 45 °C baino gehiagoko tenperaturan. Autotik ateratzen zarenean, har ezazu beti telefonoa.
- Bateria denbora luzean erabili behar ez baduzu, jaso aireztatutako leku lehor eta ilunean.
- Bateriak gastatu egiten dira pixkanaka eta kargatzeko denbora gehiago behar izaten dute. Normala da hori. Bateria normal kargatuta ere hizketan aritzeko denbora gutxitzen ari dela edo kargatzeko denbora handitzen ari dela ikusten baduzu, agian bateria berria erosteko garaia iritsi da.

Telefono honek erabiltzen dituen berriz kargatzeko bateriak behar bezala ezabatu behar dira eta birziklatu egin daitezke. Kontsultatu bateriaren etiketa, zein motako bateria den ikusteko. Jarri harremanetan herriko birziklatze-zentroarekin, erabilgarri dituzun metodo egokiak zein diren jakiteko.

**Abisua:** Ez bota inoiz bateria sutara, lehertu egin baitaiteke.

## *Bateria jartzea*

***Oharra:*** *Hala behar izanez gero, atera bateria plastiko gardeneko bilgarritik.*

Motorola Original bateriekin eta osagarriekin bakarrik bateragarri izateko moduan diseinatuta dago telefonoa. Erabili artean, bateria bilgarrian edukitzea komeni da.




1



2



3

## *Bateria kargatzea*

Bateria berriak zertxobait kargatuta etortzen dira. Telefonoa erabili ahal izateko, bateria ipini eta kargatu egin behar duzu, ondoren azaltzen den bezalaxe. Bateria batzuek errendimendu hobea izaten dute zenbait karga-/deskarga-zikloren ondoren.

**Ekintza**

**1** Konektatu bidaiarako kargagailua telefonoaren beheko aldean.



**2** Entxufatu bidaiarako kargagailuaren beste muturra korronte-hartunera.

**3** Telefonoan **Carga completa** ipintzen duenean, kendu bidaiarako kargagailua.

**Iradokizuna:** Kargatze-denbora amaitu ondoren, bidaiarako kargagailua telefonora konektatuta utz dezakezu. Horrek **ez** dio kalterik egiten bateriari.

## *Telefonoa piztea*

**Ekintza**

1 Konektatu bidaiarako kargagailua telefonoaren beheko aldean.




2 Behar izanez gero, sartu SIM txartelaren PIN kodea eta sakatu **ACEPTAR** ( ) SIM txartela desblokeatzeko.

**Kontuz:** Hiru aldiz segidan okerreko PIN kodea sartzen baduzu, SIM txartela desaktibatu egingo da eta telefonoak SIM bloqueada mezua bistaratuko du.

3 Behar izanez gero, idatzi 4 digituko desblokeatze-kodea eta sakatu **ACEPTAR** ( ) telefonoa desblokeatzeko.

## *Bolumena egokitzea*

Sakatu bolumena igotzeko edo jaisteko teklak honetarako:

- hitz egiten ari zarenean, entzungailuaren bolumena igotzeko eta jaisteko
- pantaila nagusia bistaratzen denean, txirrinaren bolumena igotzeko eta jaisteko



**Iradokizuna:** Txirrina bolumen baxuenean konfiguratuta badago, sakatu behin bakarrik bolumena jaisteko tekla, eta bibrazio bidezko alerta aktibatuko da. Sakatu berriro alerta isila aktibatzeko. Sakatu bolumena igotzeko tekla kontrako zikloa egiteko: bibrazio bidezko alertara itzultzea eta, ondoren, txirrin-alertara itzultzea.

- sarrerako deien alerta desaktibatzeko

Bolumena kontrolatzeko, hemendik ere egin dezakezu:
> **Configuración** > **Timbres**.

## *Dei bat egitea*

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 teklatuko teklak | telefono-zenbakia markatzeko |
| 2 | deia egiteko |
| 3 | deia amaitzeko eta telefonoa esekitzeko |

Telefono-aurkibidera hemendik ere sar zaitezke:
> **Agenda** > *joan nahi duzun sarrerara* > **Enviar** .

## *Dei bati erantzutea*

Dei bat jasotzen duzunean, telefonoak jo edo bibratu egiten du, edo jo eta bibratu batera egiten du, eta dei bat sartzen ari dela adierazten duen mezua bistaratzen du.

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 edo deiari erantzuteko **RESPOND** () | deiari erantzuteko |
| 2 | deia amaitzeko eta telefonoa esekitzeko |

## *Telefono-zenbaki bat kontsultatzea*

Pantaila nagusian, norberaren telefono-zenbakia bistaratzeko, sakatu .

Dei batean, sakatu > **Mis números**.

***Oharra:*** *Zure telefono-zenbakiak SIM txartelean gordeta egon behar du, funtzio hau erabili ahal izateko. Zure telefono-zenbakia SIM txartelean gordetzeko, ikus 53. orrialdea. Zure telefono-zenbakia zein den ez badakizu, jarri harremanetan zure operadorearekin.*

# Beste funtzio batzuk

Deiak egiteaz eta jasotzeaz gain, zure telefonoarekin gauza asko egiteko aukera duzu. Sail honetan, telefonoko funtzio nagusiak deskribatzen dira.

## Argazkiak ateratzea eta bidaltzea

Telefonoko kamera aktibatzeko:

**Joan funtzio honetara:** > **Multimedia** > **Cámara**

***Oharra:*** *Pantaila deiak egiteko/jasotzeko egoeran dagoela, eskuineko funtzio-tekla sakatuta ere sar zaitezke kameraren funtziora (telefonoaren konfigurazioaren arabera).*

Bideo-bisore aktiboaren irudia bistaratuko da pantailan.



Zuzendu kameraren lentea argazkia ateratzeko objekturantz; ondoren:

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 CAPTURAR ( ) | argazkia ateratzeko |
| 2 GUARDAR ( ) | gordetzeko aukerak ikusteko<br>Argazkia gorde nahi baduzu, eman hirugarren pausoa. |
| edo | |
| DESCART ( ) | argazkia ezabatzeko eta irudiaren bisore aktibora itzultzeko |
| 3 | Enviar mensaje, Solo Almacenar, Config como Fondo edo Conf como Animación aukerara joateko |
| 4 SELEC ( ) | gordetzeko nahi duzun aukera exekutatzeko |

Sakatu kamera aktibo dagoenean Menú Imágenes irekitzeko.
Menú Imágenes aukeran, beste aukera hauek egon daitezke:

| Aukera | Deskribapena |
|---|---|
| Ir a Imagenes | Telefonoan gordetako irudiak eta argazkiak bistaratzen dira. |
| Captura Auto-Temp | Kameran argazkia ateratzeko tenporizadorea jartzeko erabiltzen da. |
| Borrar Todos | Dei guztiak ezabatzen ditu. |
| Config Imágenes | Irudiaren konfigurazioak doitzeko konfigurazioaren menua irekitzen du. |
| Ver Espacio Libre | Irudiak gordetzeko zenbat leku dagoen libre ikus daiteke. |

## Multimedia-mezu bat bidaltzea

*Multimedia Mezularitza Zerbitzuko* mezu batek (MMS) orri bat edo gehiago ditu, testuarekin edo multimedia-objektuekin (argazkiak, irudiak, animazioak, soinuak, ahots-oharrak eta/edo bideoak). Multimedia-mezuak telefono mugikorra duten beste erabiltzaileei bidal diezazkiekezu eta helbide elektronikoetara bidal ditzakezu.

**Joan funtzio honetara** > **Mensajes** > **Mensaje Nuevo** > **Nuevo Mensaje MMS**

| **Sakatu** | **Honetarako** |
|---|---|
| **1** teklatuko teklak | orriko testua idazteko |
| **2** | **Menú MMS** irekitzeko |
| **3** | **Adjuntar archivo** aukerara joateko |
| **4** **SELEC** ( ) | argazkia asar ditzakezu elementuen zerrenda ikustekoteratzeko |
| **5** | **Imagen**, **Nota de Voz**, **Sonido**, **Vídeo**, **Nota**, **Info Contacto** edo **Plantillas MMS** aukerara joateko |
| **6** **SELEC** ( ) | fitxategi-mota aukeratzeko |
| **7** | behar duzun fitxategia nabarmentzeko |
| **8** **INTROD** ( ) | fitxategia txertatzeko<br>Mezuan beste orri bat gehitzeko, jarraitu.<br>Mezua bidaltzeko, eman 14. pausoa. |
| **9** | ireki **Menú MMS** orri berri bat gehitzeko |
| **10** | **Adjuntar archivo** aukerara joateko |

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 11 SELEC ( ) | sar ditzakezu elementuen zerrenda ikusteko |
| 12 | Intro página nueva aukerara joateko |
| 13 SELEC ( ) | uneko orriaren atzetik beste bat sartzeko<br><br>Eman berriro 1etik 8rako pausoak orri berriaren edukia sartzeko. |
| 14 ACEPTAR ( ) | mezua gordetzeko |
| 15 | Enviar a aukerara joateko:<br>• Hautatu [Introducir Nº] telefono-zenbaki bat edo gehiago eta helbide elektroniko bat edo gehiago sartzeko.<br>• Hautatu [Nueva Entrada] zenbaki/helbide bat sartzeko eta aurkibidean gordetzeko.<br>• Edo hautatu aurkibidean dagoen sarrera bat. |
| 16 SELEC ( ) | Hautatu [Introducir Nº] edo [Nueva Entrada] eta sartu zenbakia/helbidea |
| edo | |
| AÑADIR ( ) | aurkibideko sarrera bat hartzaileen zerrendan sartzeko |
| 17 ACEPTAR ( ) | zenbakiak/helbideak gordetzeko |

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 18 | Asunto aukerara joateko |
| 19 CAMBIAR ( ) | Asunto hautatzeko |
| 20 teklatuko teklak | gaia idazteko |
| 21 ACEPTAR ( ) | gaia gordetzeko |
| 22 ENVIAR ( ) | mezua bidaltzeko |

## *Telefono-zenbaki bat kontsultatzea*

Multimedia-mezu bat edo gutun bat jasotzen duzunean, telefonoan adierazlea bistaratzen da (mezua zain), Nuevo jakinarazpena iristen da eta alerta bat emititzen du.

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| LEER ( ) | mezua irekitzeko |

Jasotzen dituzun multimedia-mezuek multimediako hainbat objektu-mota izan ditzakete:

- Argazkiak, irudiak eta animazioak mezua irakurri ahala bistaratzen dira.
- Soinu- edo bideo-fitxategi bat, berriz, fitxategi hori dagoen orria bistaratzen denean hasten da erreproduzitzen. Erabili bolumen-teklak soinu- edo bideo-fitxategi erreproduzitzen den bitartean bolumena doitzeko.

  ***Oharra:*** *Multimedia-gutun batean, baliteke testuan adierazle bat hautatu behar izatea soinu- edo bideo-fitxategia erreproduzitzeko.*

- Fitxategi erantsiak mezuaren amaieran atxikitzen dira. Fitxategi erantsiak irekitzeko, hautatu fitxategiaren adierazlea edo izena, eta sakatu VER (-) (irudiaren fitxategi-mota), REPROD (-) (soinu- edo bideo-fitxategia), o ABRIR (-) (aurkibideko sarrera edo egutegiko sarrera gisako objektua, edo fitxategi-mota ezezaguna).

## *Bideoak erreproduzitzea*

Nabigatzailearekin bideoak deskarga ditzakezu, eta multimedia-mezuetan bideoak bidali eta jaso ditzakezu.

Telefonoan gordetako bideo bat erreproduzitzeko:

**Joan funtzio honetara:** > Multimedia > Videos

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 | bideora joateko |
| 2 REPROD (-) | bideoa erreproduzitzen hasteko |

Bideoa erreproduzitzeko pantailan bistaratzen da bideoa:



# Telefonoa erabiltzen ikastea

Ikus 1. orrialdea, telefonoaren oinarrizko diagrama ikusteko.

## Pantaila erabiltzea

*Pantaila nagusia* dei bat egiten ari *ez* zarenean edo menua erabiltzen ari *ez* zarenean bistaratzen dena da. Pantaila nagusia bistaratuta egon behar du telefono-zenbaki bat markatzeko.




Sakatu nabigazio-tekla ( ) ezkerrera, eskuinera, gora edo behera, menuko funtzioen ikonoetako bat aukeratzeko. Nahi gabe, aukeratu behar ez zenuen menuko ikono bat hautatuz gero, sakatu pantaila nagusira itzultzeko.

***Oharra:*** *Baliteke pantaila nagusia goian irudikatutakoa ez bezalakoa izatea. Adibidez, zure operadoreak menuko funtzioen ikonoak ezkuta ditzake pantailaren hondoko irudia hobeto ikusteko. Baina menuko ikonoak hauta ditzakezu, ezkutatuta egon arren. Menuko ikonoak bistaratzeko edo ezkutatzeko, ikus 78. orrialdea.*

(menua) adierazleak ohartarazten dizu menuko tekla ( ) saka dezakezula menu nagusian sartzeko.

Beheko izkinetako etiketek funtzio-teklen uneko funtzioak adierazten dituzte. Sakatu ezkerreko ( ) edo eskuineko funtzio-tekla ( ), ezkerreko edo eskuineko funtzio-teklak adierazitako funtzioa gauzatzeko.

Zure telefonoak erloju digitala edo analogikoa bistara dezake pantaila nagusian (ikus 78. orrialdea).

Egoera-adierazle hauek bistara daitezke:




## 1. Estalduraren adierazlea

Barra bertikalek estaldura-maila zein den adierazten dute. Ezin duzu deirik egin edo jaso adierazlea (seinalerik gabe) edo adierazlea (transmisiorik gabe) bistaratzen denean.

## 2. GPRSaren adierazlea



Telefonoa abiadura handiko GPRS sare-konexioa erabiltzen ari dela adierazten du (General Packet Radio Service). GPRSaren bidez, datu-transferentzia askoz abiadura handiagoan egiten da. Adierazleak hauek barne har ditzakete:

= GPRS PDP ingurune aktiboa

= GPRS datu-paketeak eskuragarri

## 3. Datu-transmisioaren adierazlea

Datu-transmisioaren eta konexioaren egoera bistaratzen du. Adierazleak hauek barne har ditzakete:

= datu-paketeen transferentzia segurua

= datu-paketeen transferentzia ez da segurua

= aplikazio-konexio segurua

= aplikazio-konexio ez da segurua

= CSD dei segurua (Circuit Switch Data, Zirkuitu Kommutazioko datuak)

= CSD deia ez da segurua

## 4. Desplazamendu-adierazlea



Telefonoa zure sare-sistema ez den beste bat bilatzen ari dela adierazten du. Adierazleak hauek barne har ditzakete:

= 2.5G lokala

= 2.5G desplazamendu-egoera

= 2G lokala

= 2G desplazamendu-egoera

## 5. Linea aktiboaren adierazlea



edo bistaratzen du, aktibo dagoen linea zein den adierazteko. Beste adierazle batzuek hauek barne har ditzakete:

= 1 linea aktibatuta, deiak desbideratzeko aukera aktibatuta

= 2 linea aktibatuta, deiak desbideratzeko aukera aktibatuta

= alarma aktibatuta

## 6. Mezularitza aktibo dagoela esan nahi duen adierazlea



Berehalako mezularitza (IM) aktibo dagoela adierazten du. Adierazleak hauek barne har ditzakete:

= IM aktibo

= IMrako erabilgarri

= Okupatuta

= IMk ez ikusteko moduan

= Telefono-deiak egiteko erabilgarri

= Deskonektatuta

Java aplikazio bat aktibatuta dagoenean, (java midlet) adierazlea bistara daiteke toki honetan.

## 7. Mezuen adierazlea



Mezu berri bat jaso denean bistaratzen da. Adierazleak hauek barne har ditzakete:

= testu-mezua

= IM mezua

= testu-mezua eta ahots-postontziko mezua

= ahots-postontziko mezua

= txat-saioa aktibatuta

Mezu bat idazten duzunean, kokapen horretan dagoen zenbakiak adierazten du uneko orrian zenbat karaktere sar ditzakezun (testu-mezua) edo mezuaren tamaina zenbatekoa den (mezua edo multimedia-gutuna).

## 8. Kokapenaren adierazlea



Telefonoak kokapenari buruzko informazioa bidal dezake sarera, larrialdi-dei batean. Adierazle hauek adierazten dute telefonoa noiz ari den kokapenari buruzko informazioa bidaltzen:

= kokapena aktibatuta

= kokapena desaktibatuta

## 9. Txirrin-motaren adierazlea

Txirrin-motaren konfigurazioa bistaratzen du.

= txirrin altua

= bibrazioa

= isilik

= txirrin baxua

= bibrazioa eta txirrina

**10. Bateriaren mailaren adierazlea**

Barra bertikalek bateriaren karga-maila adierazten dute. Kargatu berriro bateria **Bateria Baja** mezua ikusten duzunean eta bateriaren alerta entzuten duzunean.

## *Nabigazio-teklak erabiltzea*

menuetan

Nabigazio-tekla



Erabili nabigazio-tekla ( ) gora, behera, ezkerrera edo eskuinera mugitzeko, menuko aukerak hautatzeko, konfigurazioak aldatzeko eta jolas egiteko. Sakatu *hautatzeko erdiko* botoia, menuan nabarmendutako elementua hautatzeko.

Hautatzeko erdiko botoiak normalean eskuineko funtzio-teklaren funtzio bera egiten du ( ).

## *Menuak erabiltzea*

Pantaila nagusian, sakatu menu nagusira sartzeko.




Sakatu menu nagusiko funtzioaren ikono batera joan eta hura hautatzeko. Ikono hauek menu nagusian bistaratzen diren funtzio osagarriak dira, zure operadorearen eta harpidetutako zerbitzuaren arabera.

| Ikonoa | Funtzioa | Ikonoa | Funtzioa |
|---|---|---|---|
| | Aplicaciones | | Multimedia |
| | Herramientas | | Configuración |
| | IM | | Opciones WAP |
| | Agenda | | Ultimas Llamadas |
| | Mensajes | | Chat |

## *Menuko funtzio bat aukeratzea*

Pantaila nagusian, menuko funtzio bat aukeratzea:

**Joan funtzio honetara:** > Ultimas Llamadas > Llamadas Realizadas

Adibide honetan, erakusten da pantaila nagusitik sakatu behar dela eta Ultimas Llamadas aukerara joan eta hautatu behar dela pantaila nagusian; ondoren, joan Llamadas Realizadas aukerara eta hautatu. Sakatu tekla mugitzeko, eta eskuineko/ezkerreko funtzio-teklak pantailaren beheko eskuineko eta ezkerreko aldeetan bistaratzen diren funtzioak aukeratzeko.

## *Funtzio bat hautatzea*

Funtzio batzuetan sartzeko, zerrenda bateko aukera bat hautatu behar da:




Sakatu gora edo behera mugituz nahi duzun aukera hautatzeko.

Zenbakizko zerrendan, sakatu zenbaki-tekla bat aukera hautatzeko.

Zerrenda alfabetikoan, sakatu tekla bat behin eta berriro, tekla horretako letrak hautatzeko eta zerrendan gertuen dagoen aukera hautatzeko.

Aukera batek balio posibleen zerrenda bat duenean, sakatu ezkerrera edo eskuinera mugitzeko eta balio bat aukeratzeko.

Aukera batek hainbat zenbakizko balioren zerrenda badu, sakatu zenbaki-tekla balioa ezartzeko.

## *Testua idaztea*

Funtzio batzuetan informazioa sartu behar da.




Mezuen menuak testu-mezuak idazteko eta bidaltzeko aukera ematen du. *Karaktere-kontagailuak* mezuan oraindik sar dezakezun karaktere-kopurua adierazten dizu.



## *Testua idazteko metodoa hautatzea*

Testua idazteko metodo ugari daude, izenak, zenbakiak eta testu-mezuak errazago sartzeko. Hautatzen duzun metodoa (adibidez, iTAP testu prediktiboa edo Tap metodoa) aktibo egongo da beste bat hautatu arte.

Sakatu testua idazteko edozein pantailatan, testua idazteko metodo hauetako bat hautatzeko:

| | |
|---|---|
| **Principal** | Testua idazteko metodo nagusia (konfiguratzeko, ikus behean) |
| **Numérico** | Zenbakiak bakarrik sartzeko balio du (ikus 45. orrialdea). |
| **Símbolo** | Ikurrak bakarrik sartzeko balio du (ikus 45. orrialdea). |
| **Secundario** | Testua idazteko bigarren metodoa (konfiguratzeko, ikus behean) |

Nahi izanez gero, testua idazteko metodoa hauta dezakezu, testua idazteko edozein pantailatan, > **Método Escritura sakatuta**.

**Iradokizuna:** Editatzeko moduan, idazteko metodo batetik bestera alda zaitezke sakatuta.

## Testua idazteko metodoa konfiguratzea

Sakatu > **Config Método** testua idazteko edozein pantailatatik. Aukeratu **Conf Ppal**. edo **Conf Secund**., eta hautatu:

| | |
|---|---|
| **ITAP** | Teklak sakatzen zoazen heinean, telefonoak hitzak aurresaten ditu (ikus 43. orrialdea). |
| **Tecleo** | Letrak eta zenbakiak tekla bat behin edo behin baino gehiagotan sakatuta idazteko aukera ematen du. |

| | |
|---|---|
| **Tap Ampliado** | Letrak, zenbakiak eta ikurrak tekla bat behin edo behin baino gehiagotan sakatuta idazteko aukera ematen du. |
| **No** | Bigarren konfigurazioa ezkutatzen du (Configuración secundaria aukerarako bakarrik dago). |

## Maiuskulak erabiltzea

Sakatu [0+↑] testua idazteko edozein pantailatan, maiuskulatik minuskulara eta alderantziz aldatzeko. Ikur hauek maiuskulen egoera adierazten dute:

abc = minuskulak

Abc = hurrengo letra bakarrik maiuskulaz

ABC = guztia maiuskulaz

## testua idazteko metodoaren adierazleak

Testua idazteko Principal edo Secundario metodoa hautatzen duzunean, adierazle hauek identifikatzen duten testua idaztearen konfigurazioa:

| Primario | Secundario | |
|---|---|---|
| 1 | 2 | Tap, minuskulaz |
| 1⇧ | 2⇧ | Tap, hurrengo letra bakarrik maiuskulaz |
| 1⬆ | 2⬆ | Tap, guztiak maiuskulaz |
| 1 | 2 | iTAP, minuskulaz |
| 1⇧ | 2⇧ | iTAP, hurrengo letra bakarrik maiuskulaz |
| 1⬆ | 2⬆ | iTAP, guztiak maiuskulaz |

Adierazle hauek zenbakiak edo ikurrak sartzeko metodoa identifikatzen dute:

123 = zenbakien metodoa @ = ikurren metodoa

## *TAP metodoa erabiltzea*

Hau da telefonoan testua idazteko metodo estandarra.

Sakatzen dituzun letrak eta zenbakiak idazteko aukera ematen du metodo estandarrak. Tap ampliado metodoarekin, ikur osagarriak ere idatz daitezke, 42. orrialdeko taularen arabera.

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **1** sakatu teklatuko tekla bat behin edo hainbat alditan. | letra, zenbaki edo ikur bat hautatzeko |
| **2** teklatuko teklak | gainerako karaktereak idazteko.<br>**Iradokizuna:** Sakatu eskuinerantz hitza amaitu dela onartzeko, edo espazio bat sartzeko |
| **3** **ACEPTAR** ( ) | testua gordetzeko |

Testua idazteko pantailetan, sakatu idazteko metodoa aldatzeko. **Tecleo** edo **Tap Ampliado** aukerak testua idazteko metodo **Principal** edo **Secundario** metodo gisa erabilgarri ez badaude, ikus 38. orrialdea.

Testua **Tecleo** edo **Tap Ampliado** metodoarekin idaztean, funtzio-teklen funtzioak aldatu egiten dira:




Karakterea testua idazteko puntuan azaltzen da

Bi segundo pasatu ondoren, karakterea onartu egiten da eta kurtsorea hurrengo posiziora mugitzen da.

Sakatu **BORRAR** ( ) testua idazteko lekuaren ezkerrean dagoen karakterea ezabatzeko

Sakatu **ACEPTAR** ( ) testua onartu eta gordetzeko.

Hiru karaktere edo gehiago segidan idazten dituzunean, baliteke telefonoak hitza identifikatzea. Adibidez, **prog** idazten baduzu, hau ikus dezakezu:




Karakterea testua idazteko puntuan azaltzen da.

Sakatu ▶ **programa** hitza onartzeko edo sakatu **prog** ez onartzeko edo atzetik espazioa sartzeko.

Beste hitz bat idatzi nahi baduzu (adibidez, **progreso**) segitu teklatuko teklak sakatzen gainerako karaktereak idazteko.

## Karaktereen taula

Erabili taula hau **Tap Ampliado** metodoarekin karaktereak sartzeko gida gisa.

| | |
|---|---|
| 1 | . ? ! , @ ' - _ : ; ( ) & " ~ 1 0 ¿ ¡ % £ $ ¥ ¤ € + x * / \ [ ] = > < # § |
| 2ABC | a b c 2 á à â ã ç æ |
| 3DEF | d e f 3 é è ê ë |
| 4GHI | g h i 4 í î ï |
| 5JKL | j k l 5 |
| 6MNO | m n o 6 ñ ó ò ô õ œ |
| 7PQRS | p q r s 7 |
| 8TUV | t u v 8 ú ù û ü |
| 9WXYZ | w x y z 9 |
| 0+ | letra-tipoa aldatzea, maiuskulaz idazteko |
| * | espazioa sartzea (luze sakatu orga-itzulera bat sartzeko) |
| # | testua idazteko metodoa aldatzea (luze sakatu tekla, lehenetsitako metodoa aukeratzeko) |

***Oharra:*** *Baliteke taulan ez bistaratzea zehatz-mehatz telefonoan erabilgarri dituzun karaktere guztiak. Helbide elektroniko batean edo URL editore batean,* 1 *teklak editore horretako karaktere ohikoak bistaratzen ditu lehenengo.*

## Testua metodo estandarrarekin idazteko arauak

- Sakatu teklatuko tekla bat behin eta berriro karaktere batetik bestera joateko.

- Sakatu ezkerrera edo eskuinera, kurtsore keinukaria testu-mezuan ezkerrera edo eskuinera mugitzeko.
- Esaldi bakoitzeko lehen karakterea beti bistaratuko da maiuskulaz Beharrezkoa bada, sakatu beherantz karakterea minuskulaz jartzeko, kurtsorea hurrengo posiziora mugitu aurretik.
- Informazioren bat sartu edo aldatzen baduzu eta aldaketak gorde nahi ez badituzu, sakatu gorde gabe ateratzeko.

## *iTAP™ metodoa erabiltzea*

iTAP™ softwarea testua idazteko idazketa-metodo prediktiboa da; horren bidez, teklak letra bakoitzeko behin bakarrik sakatuta idatz daiteke hitza. **Tecleo** metodoa baino bizkorragoa izan daiteke; izan ere, telefonoak hitz arrunt bihurtzen ditu teklen pultsazioak.

Adibidez, sakatzen baduzu, sakatutako tekletako letren konbinazioak bistaratuko dira:




Sakatu ▲ **Programa** hitza onartzeko

Sakatu ▶ beste konbinazio bat nabarmentzeko
Sakatu **Prog** eta hutsune bat idazteko

Sakatu **BORRAR** ( ) azken hitza ezabatzeko

Sakatu **SELEC** ( ) nabarmendutako konbinazio bat blokeatzeko

Beste hitz bat idatzi nahi baduzu (adibidez, **progreso**) segitu teklatuko teklak sakatzen gainerako karaktereak idazteko.

## Hitzak idaztea

Testua idazteko pantailetan, sakatu (#) idazteko metodoa aldatzeko. Adierazle batek esaten du zein metodo dagoen aktibo (ikus 39. orrialdea). **iTAP** metodoa testua idazteko metodo **Principal** edo **Secundario** metodo gisa erabilgarri ez badago, ikus 38. orrialdea.

| | Sakatu | Honetarako |
|---|---|---|
| 1 | Teklatuko teklak (pultsazio bat letra bakoitzeko) | pantailaren beheko aldean, letren konbinazio posibleak bistaratzeko |
| 2 | (nabigazio-tekla) ezkerrera edo eskuinera | nahi duzun konbinazioa nabarmentzeko |
| 3 | **SELEC** (-) | nabarmendutako konbinazioa blokeatzeko<br>Teklatuko teklak erabil ditzakezu, konbinazioaren amaieran letra gehiago sartzeko. |
| | o<br>(*) | hitz bat osatzean, nabarmendutako konbinazioa sartzeko<br>Hitz bakoitzaren ondoren tarte bat sartzen da automatikoki. |

Telefonoak ezagutzen ez duen hitz bat idazten baduzu, telefonoak gorde egiten du, ondoren erabili ahal izateko. Hitzen memoriako espazioa betetan dagoenean, telefonoak zaharrenak ezabatzen ditu berriak sartzeko.

## *Zenbakien metodoa erabiltzea*

Testua idazteko pantailetan, sakatu idazteko metodoa aldatzeko, 123 adierazlea bistaratu arte (zenbakizkoa).

Sakatu teklatuko teklak nahi duzun zenbakia idazteko. Amaitu ondoren, sakatu metodoa aldatzeko.

## *Ikurren metodoa erabiltzea*

Testua idazteko pantailetan, sakatu idazteko metodoa aldatzeko, @ adierazlea bistaratu arte (ikurra).

| | Sakatu | Honetarako |
|---|---|---|
| 1 | Teklatuko teklak (pultsazio bat letra bakoitzeko) | pantailaren beheko aldean, letren konbinazio posibleak bistaratzeko |
| 2 | ezkerrera edo eskuinera | nahi duzun konbinazioa nabarmentzeko |
| 3 | SELEC ( ) | nabarmendutako konbinazioa blokeatzeko<br>Teklatuko teklak erabil ditzakezu, konbinazioaren amaieran letra gehiago sartzeko. |
| | o | nabarmendutako konbinazioa sartzeko |

### Ikurren taula

Erabili taula hau metodo estandarrarekin ikurrak sartzeko gida gisa.

| | |
|---|---|
| 1 | . ? ! , @ ' - _ : ; ( ) & " ~ 1 0 ¿ ¡ % £ $ ¥ ¤ € + x * / \ [ ] = > < # § |
| 2ABC | @ _ \ ß |

| | |
|---|---|
| 3 DEF | / : ; |
| 4 GHI | " & ' |
| 5 JKL | ( ) [ ] { } |
| 6 MNO | ¿ ¡ ~ |
| 7 PQRS | < > = |
| 8 TUV | $ £ ¥ ¤ |
| 9 WXYZ | # % * |
| 0 + | + - x * / = > < # § |
| * | introducir un espacio (mantener pulsado para introducir un retorno de carro) |
| # | cambiar el método de escritura de texto (mantener pulsado para el método por defecto) |

***Oharra:*** *Baliteke taulan ez bistaratzea zehatz-mehatz telefonoan erabilgarri dituzun karaktere guztiak.* Helbide elektroniko batean edo URL editore batean, teklak editore horretako karaktere ohikoak bistaratzen ditu lehenengo.

## *Letrak eta hitzak ezabatzeko*

Jarri kurtsorea ezabatu nahi duzun testuaren eskuinean eta eman pauso hauek:

| **Ekintza** |
|---|
| Sakatu **BORRAR** (-) txanda bakoitzean hitz bat ezabatzeko. |
| Luze sakatu **BORRAR** (-) mezu osoa ezabatzeko. |

## *Funtzio ugariko tekla erabiltzea*

Funtzio ugariko teklak telefonoaren oinarrizko funtzioak erabiltzeko beste modu bat eskaintzen dizu. Aurrea hartzen du eta ziurrenik egingo duzun ekintza nabarmentzen du. Adibidez, menuko aukera bat nabarmentzen duzunean, funtzio ugariko tekla saka dezakezu hautatzeko. Funtzio ugariko tekla erabil dezakezu deiak egiteko eta amaitzeko, funtzioak aktibatzeko eta desaktibatzeko eta telefono-aurkibidea irekitzeko. Normalean, funtzio ugariko teklak eskuineko funtzio-teklaren funtzio berak egiten ditu ( ).

## *Kanpoko pantaila erabiltzea*

Tapa itxita dagoenean, kanpoko pantailan eguna, ordua eta telefonoaren egoerari buruzko informazioa bistaratzen dira. Sarrerako deien eta beste gertakarien berri emateko mezuak ere bistaratzen dira. Ikus 28. orrialdea, pantailaren kanpoko aldean bistaratzen diren egoera-adierazleei buruzko informazio gehiago izateko.

***Oharra:*** *Entzungailua konektatzen ez baduzu, telefonoa itxita dagoela ezin duzu deirik egin eta horiei erantzun.*

## *Esku libreko bozgorailua erabiltzea*

Telefonoan integratutako esku libreko bozgorailua aktibatzen duzunean, beste pertsona batekin hitz egin dezakezu telefonoa belarri ondoan eduki gabe.

Sakatu ALTAVOZ ( ) deian esku libreko bozgorailua konektatzeko eta deskonektatzeko.

Esku libreko bozgorailua aktibatzean, pantaila nagusian Altavoz Conectado mezua bistaratzen da. Esku libreko bozgorailua aktibatuta egongo da ALTAVOZ ( ) berriro sakatu arte edo telefonoa itzali arte.

***Oharra:*** *Esku libreko bozgorailua inaktibo geratuko da, autoko kitera edo telefonoko entzungailura konektatzen bada.*

## *Kodea, PINa edo pasahitza aldatzea*

Aurrez zehaztutako 4 digituko desblokeatze-kodea 1234 da eta segurtasuneko 6 digitukoa, berriz, 000000. Baliteke zure operadoreak kode horiek aldatzea, zuk telefonoa erosi aurretik. Operadoreak kode horiek aldatu ez baditu, zuk aldatzeko aholkatzen dizugu, besteek zure informazio pertsonalera sartzeko aukera izan ez dezan. Desblokeatze-kodeak lau digitukoa izan behar du eta segurtasunekoak seikoa.

SIM txartelaren PIN kodea, PIN2 kodea eta/edo deiak blokeatzeko pasahitza ere alda ditzakezu, behar izanez gero.

Kode edo pasahitz bat aldatzeko:

**Joan funtzio honetara:** > **Configuración** > **Seguridad** > **Contraseñas Nuevas**

## *Telefonoa blokeatzea eta desblokeatzea*

Telefonoa eskuz blokea dezakezu edo itzaltzean automatikoki blokeatzeko konfigura dezakezu.

Blokeatutako telefono bat erabiltzeko, desblokeatze-kodea sartu behar da. Telefonoa blokeatuta egonda ere, deiak edo mezuak jasotzean jo edo bibratu egingo du, *baina desblokeatu egin behar da erantzun nahi bada*.

Telefonoa blokeatuta dagoenean ere egin ditzakezu larrialdi-deiak (ikus 62. orrialdea).

### *Telefonoa eskuz blokeatzea*

**Joan funtzio honetara:** > **Configuración** > **Seguridad** > **Bloqueo Teléfono** > **Bloquear Ahora**

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **1** teklatuko teklak | desblokeatze-kodea sartzeko |
| **2** ACEPTAR (-) | telefonoa blokeatzeko |

## *Telefonoa desblokeatzea*

Aurrez finkatutako desblokeatze-kodea 1234 da. Baliteke zure operadoreak desblokeatze-kodea aldatu izana eta, lehengoaren ordez, zure telefono-zenbakiaren azken lau digituak sartzea.

**Código Desbloqueo** mezua bistaratzen denean:

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **1** teklatuko teklak | desblokeatze-kodea sartzeko |
| **2** ACEPTAR (-) | telefonoa desblokeatzeko |

## *Telefonoaren blokeo automatikoa konfiguratzea*

Itzaltzean telefonoa blokeatzeko moduan konfigura dezakezu telefonoa:

**Joan funtzio honetara:** (menu-tekla) > **Configuración** > **Seguridad** > **Bloqueo Teléfono** > **Bloquear Automático** > **Activado**

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| **1** teklatuko teklak | desblokeatze-kodea sartzeko |
| **2** ACEPTAR (-) | blokeo automatikoa aktibatzeko |

## Kodea, PINa edo pasahitza ahaztu bazaizu

Aurrez zehaztutako 4 digituko desblokeatze-kodea 1234 da eta segurtasuneko 6 digitukoa, berriz, 000000. Baliteke zure operadoreak aurrez zehaztutako desblokeatze-kodea aldatu eta zure telefono-zenbakiaren azken lau digituak sartzea.

Desblokeatze-kodea ahaztu egin bazaizu, saiatu 1234 kodearekin edo zure telefono-zenbakiaren azken lau digituekin. Balio ez badu, egin honako hau pantailan **Código Desbloqueo** mezua bistaratzen denean:

| Sakatu | Honetarako |
|---|---|
| 1 | desblokeatze-kodea kentzeko pantaila bistaratzeko |
| 2 teklatuko teklak | segurtasun-kodea sartzeko |
| 3 **ACEPTAR** ( ) | segurtasun-kodea erregistratzeko |

Segurtasun-kodea, SIM txartelaren PINa, PIN2 kodea edo deiak blokeatzeko pasahitza ahaztu baduzu, jarri harremanetan zure operadorearekin.

## Telefono-aurkibidea erabiltzea

Sail honetan aurkibidearen oinarrizko eragiketak labur azaltzen dira. Aurkibidearen erabilerari buruzko informazio gehiago izateko, ikus 75. orrialdea.

### Telefono-zenbaki bat gordetzea

Idatzi telefono-zenbaki bat pantaila nagusian eta sakatu **GUARDAR** ( ) aurkibidean zenbaki horrekin sarrera bat sortzeko. Bete gainerako eremuak sarrera osatzeko.

Hautatu **MAS** izen berarekin beste zenbaki bat gordetzeko (adibidez, laneko telefono-zenbakia).

## *Ahots-etiketa bat grabatzea*

Aurkibidean sarrera bat sortzen duzunean, joan **Etiqueta de Voz** aukerara eta sakatu **GRABAR** ( ). Sakatu eta askatu ahots-tekla, eta esan sarreraren izena (bi segundotan) Hala eskatzen dizunean, sakatu eta askatu ahots-tekla eta esan berriro izena. Sakatu **ACEPTAR** ( ) ahots-etiketa gordetzeko.

***Oharra:*** *Aukera hau ezin da erabili SIM txartelean jasotako sarrerekin.*

## *Irudi bat dei-identifikaziorako gordetzea*

Irudi bat gorde dezakezu aurkibideko sarrera batekin lortzeko. Sarrera horretatik deia jasotzen duzunean irudia bistaratuko da.

***Oharra:*** *Aukera hau ezin da erabili SIM txartelean jasotako sarrerekin.*

Aurkibidean sarrera bat sortzean, joan **Imagen** aukerara eta sakatu **CAMBIAR** ( ). Sakatu irudi bat hautatzeko eta sakatu **SELEC** ( ) irudi hori gorde eta sarrera batekin lotzeko.

## *Zenbaki bat markatzea*

Sakatu > **Agenda** > *deitzeko sarrera .*

***Oharra:*** *Deiak jasotzeko/egiteko egoeran, aurkibidera sakatuta ere sar zaitezke (telefonoaren konfigurazioaren arabera).*

**Iradokizuna:** **Agenda** aukerako zerrendan sarrerak bizkor hautatzeko: Sarrerak markaketa bizkorreko zenbakiaren arabera ordenatuta badaude, sakatu markaketa bizkorreko zenbakia sarrera hautatzeko. Adibidez, sakatu **,** 15 sarrerari dagokion telefono-zenbakia hautatzeko. Zure izenak **Nombre**, **Etiqueta de Voz** edo **Email** aukeren arabera ordenatuta badaude, sartu izenaren lehenengo letra hautaketa egiteko. Adibidez, sakatu "K" letrarekin hasten den lehenengo sarrera joateko.

## *Ahots bidez zenbakiak markatzea*

Sakatu eta askatu ahots-tekla, eta esan sarreraren izena (bi segundotan)

## *Aurkibideko sarrerak ordenatzea*

Sakatu > **Agenda**, sakatu > **Configurar** > **Ordenar por**; ondoren, hautatu zerrenda zeren arabera ordenatu nahi duzun: **Nombre, Nº Marc Rápida**, **Etiqueta de Voz** edo **Email**.

Izenaren arabera ordenatzen duzunean, izenaren zenbaki guztiak **Todo** edo zenbaki bakarra **Principal** bistara dezakezu. Izen baten zenbaki nagusia aukeratzeko, ikus 77. orrialdea.

## *Sarrerak kategoriaren arabera bistaratzea*

Sakatu > **Agenda**, sakatu > **Categorías**; ondoren, hautatu sarrera guztiak **Todo** ikusi nahi dituzun, aurrez definitutako kategoriaren sarrerak (**Empresa**, **Personal**, **General**, **VIP**) ikusi nahi dituzun edo sortutako kategoriako sarrerak ikusi nahi dituzun.

Aurkibideko sarrera batentzako kategoria erabakitzeko, ikus 76. orrialdea.

# Telefonoa konfiguratzea

## Zure izena eta telefono-zenbakia gordetzea



SIM txartelean izena eta telefono-zenbakia gordetzeko edo aldatzeko:

**Joan funtzio honetara:** > **Configuración** > **Estado Teléfono** > **Mis Números**

**Zuzeneko sarbidea:** Sakatu pantaila nagusian, izena eta telefono-zenbakia editatzeko.

Zure telefono-zenbakia zein den ez badakizu, jo zure operadorearengana.

